**GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEAK 2016**
**PROIEKTUEN DESKRIBAPENA**

| GKE | PROIEKTUA | PUNTUAZIOA | € |
|---|---|---|---|
| MSH | *"Urritasuna duten Diriamba herriko gazte eta helduen formazio sozio laborala"*<br>Diriamba hiria. Nicaragua<br><br>Helburua: Urritasun funtzionala duten gazte eta helduen laneratze eta gizarteratze prozesuetan eragitea.<br>Onuradunak: 48 nerabe eta heldu =>53<br><br>Elkarteak 2000. urtetik dihardu programa honekin.<br><br>Proiektua nola gauzatu den: "Nosotr@s también podemos" gizarte eta lan programa indartu dute. Boluntario baten lanari esker, 16 urte hauetako lana aztertu eta programak zer bide hartu behar duen finkatu dute. Ortua sortu dute, hortik janaria lortuz, eta lan horretan kanpoko boluntario talde baten laguntza jaso dute. Modulo berriak eraiki dituzte eta antolakuntza berriari esker, tailerretan lana erosoagoa eta seguruagoa izan da. Tailerretako irakasleek formazioa jaso dute eta elbarrituendako arreta hobetu egin da. Tailerretan ekoiztutako lanak leku desberdinetan jarri dituzte salgai eta horrekin salmenta igo da. Sentsibilizazio kanpainak ere egin dituzte, baina jarduera honek, zoritxarrez, ez du izan eragin handirik gizartean, eta gutxiago instituzioetan.<br>Proiektuan 16 langile daude eta horietako 5 elbarrituak dira, hau da, %31,25. | 9 | 3.446,81 |
| HIRUATX | *"Kitxuen WIÑAK elkarte indigenaren antolaketa sendotzea, kakao ekologikoa saltzeko"*<br>Napo. Ecuador<br><br>Helburua: Ekonomia endogenoa bultzatzea eta Wiñak elkarteko familia kitxuen bizi baldintzak hobetzea.<br>Onuradunak: 257 nekazari<br><br>Proiektua nola gauzatu den: Kakao ekoizpenaren prozesurako 2 sekadore jarri dira eta horrekin denbora gutxitan produktu gehiago lehortzea lortu dute, produktoaren kalitatea mantenduz. Ekoizpena haunditu egin dute. Parte-hartzaile gehienak emakumeak dira. Ustiategien mapeo egin dute Produktu Organikoen Ziurtagiria lortzeko (hurrengo urtean martxan egongo da). Barne erreglamendua sortu dute eta bertan jasota geratu dira, besteak beste, ekoizleen bete-beharrak kakao landarearen uztarako.<br>Beste jarduera bat sortu da: wayusa landare-orrien lehorketa.<br>Beste 215 kide sartuko dira Wiñak elkartean. | 10 | 3.829,79 |
| OSCAR ROMERO | *"Osasungarritasunerako baldintzak eta jardunbideak hobetzea"*<br>El Chagüite kantoia, Tacuba udalerria. Ahuachapan departamentua. El Salvador<br><br>Helburua: Higiene eta osasungarritasun baldintzak hobetzea, ikuspegi ekologiko batetik, Llano Grande Komunitatean.<br>Onuradunak: 175 pertsona<br><br>Proiektua nola gauzatu den: 35 komun (letrina abonera seca familiar) egin dituzte, oso egoera larrian zeuden 35 familiendako. Eraikuntza prozesuan familia bakoitzeko 2 kide laguntzaile izan dira. Komunen funtzionamendua ezagutzeko, ikastaroak eman dituzte eta familiako kide guztiek hartu dute parte. Proiektuarekin kutsadura gutxitu da eta osasun baldintzak hobetu egin dira. | 9 | 3.446,81 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| BALTISTAN FUNDAZIOA | *"Sharba Sharbak II: hobekuntzak bigarren hezkuntzan"*<br>Hushe Bailara, Baltistan-Pakistan<br><br><u>Helburua</u>: Ikasleen prestakuntza egokia bultzatzea<br><u>Onuradunak</u>: 75 neska-mutil<br><br><u>Proiektua nola gauzatu den</u>: Hasierako proiektuan aldaketak egin dituzte: LHko eraikuntzaren gainean egin beharrean, beste eraikuntza bat egitea erabaki dute, eta horrela DBHko maila guztiak izango ditu eskola berriak. Aurten 3 gela egingo dituzte, 6., 7. eta 8. mailak (horietako 2 gela Aretxabaletako Udalak emandako diruarekin), eta hurrengo urteetan 9., 10., 11. eta 12. mailetako gelak. Aurten materiala erosi dute eta lana negua pasatu eta gero egingo dute, 2017an. Proiektu honen benetako onuradunak neskak dira: eskolan jarraitzeko aukera hor bertan daukatelako (bestela utzi egiten dute eskola eta ezkontzeko bidea hartzen dute). Datuen arabera, neskatilen %93ak Lehen Hezkuntzan egiten du eta hori lurralde horretan arrakastatsua da. Eskola berriaren eraikuntzan 167 gizonek doan egingo dute lan. | 9 | 3.446,81 |
| AMSOGRA | *"Etxebizitza duin eta osasuntsuaren alde"*<br>Mozonte, Nueva Segovia. Nicaragua<br><br><u>Helburua</u>: Coco errekaren hegoaldean bizi diren nekazarien bizimodua hobetzea, batez ere emakumeena, eta erikortasun eta heriotza-tasak gutxitzea.<br><u>Onuradunak</u>: familia bat.<br><br>Orain arte, 22 etxe eraiki dira.<br><br><u>Proiektua nola gauzatu den</u>: Auzokoen eta indiginen liderren artean aukeratutako "San Antonio" auzoko familiak 8 kide dauka, gurasoak eta 6 seme-alaba. Familia hori erortzear zegoen etxe baten bizi zen, zirrikituz betetako logela berean. Etxe berriarekin, gaixotasun batzuk saihesteaz aparte (Chagas desagertu, eta denge eta malaria %50a gutxitu…), euren bizimodua hobetu egin da. Langile guztiak auzokoak izan dira eta familia osoaren artean 1.800 adobe egin dute. Aldaketen artean: 3 logela, ur edangarria etxean bertan, komun garbia eta egokia, kerik gabeko sukaldea, saredun leihoak. Etxearen ondoan ortua jarri dute. Proiektuaren aldaketarik nabarmenena teilatua izan da: egurrezkoa egitea izan zen asmoa, baina metala eta gainean teilak jarri behar izan dituzte. Orain etxearen jabeak senarra eta emaztea dira. Familiaren duintasuna eta bere buru-errespetua susperzea lortu da proiektuarekin. | 10 | 3.829,79 |

**ORGANIZACIONES NO GOBERNAMENTALES 2016**
**DESCRIPCIÓN DE LOS PROYECTOS**

| ONG | PROYECTO | PUNTUACIÓN | € |
|---|---|---|---|
| MSH | *"Formación socio laboral de jóvenes y adultos con discapacidad del pueblo de Diriamba"*<br>Ciudad de Diriamba. Nicaragua<br><br>Objetivo: Promover la integración laboral y social de jóvenes y adultos con discapacidad.<br>P. beneficiarias: 48 jóvenes y personas adultas.<br><br>La Asociación lleva desarrollando este programa desde el año 2000.<br>Puesta en marcha del proyecto: Se ha fortalecido el programa social y laboral "Nosotr@s también podemos". Gracias al trabajo de una voluntaria, se han valorado los 16 años de trabajo y se ha dado una nueva orientación al proyecto. Se ha creado un huerto, contando con la colaboración de otro grupo de voluntarios. Se ha creado un nuevo módulo y con la nueva organización, el trabajo en los talleres es más cómodo y seguro. Se han ofrecido cursos de formación para los educadores, mejorando de este modo la atención hacia las personas discapacitadas. Puesta en marcha de un nuevo sistema de venta de los trabajos producidos, consiguiendo un aumento de los ingresos. Campañas de sensibilización, aunque con un inpacto menor del esperado.<br>En el proyecto trabajan 16 personas y 5 tienen minusvalía, el 31,25%. | 9 | 3.446,81 |
| HIRUATX | *"Fortalecimiento organizativo en la comercialización de cacao ecológico de la asociación indígena kichwa WIÑAK"*<br>Napo. Ecuador<br><br>Objetivo: Impulsar la economía endógena y mejorar las condiciones de vida de las familias kichwas vinculadas al Wiñak.<br>P. beneficiarias: 257 agricultores.<br><br>Puesta en marcha del proyecto: Se han instalado dos secadores en la producción del cacao, reduciendo así los tiempos de secado, manteniendo su calidad y aumentando su producción. Participación mayoritaria de mujeres. Mapeo del total de instalaciones. Tramitando el Certificado de productos Orgánicos. Creación del reglamento Interno donde se recoge por ejemplo requisitos de los productores de la cosecha de la planta del cacao.<br>Ha surgido una actividad no prevista: secado de la hoja de wayusa.<br>Solicitud de 215 personas más para entrar en la asociación Wiñak. | 10 | 3.829,79 |
| OSCAR ROMERO | *"Mejorar las condiciones y actuaciones saludables"*<br>Cantón El Chagüite,Tabuka, departamento de Ahuachapen .El Salvador<br><br>Objetivo: Mejorar las condiciones de higiene y salud, desde un punto de vista ecológico, en la comunidad de Llano Grande.<br>P. beneficiarias: 175 personas<br>Puesta en marcha del proyecto: Han construido 35 servicios (letrina abonera seca familiar) junto a las viviendas de 35 familias en situación de extrema pobreza. 2 miembros de cada familia han participado en su construcción. Todos los miembros del as familias han participado en un curso de formación para el buen funcionamiento del servicio sanitario.<br>Gracias a este proyecto, se ha reducido la | 9 | 3.446,81 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | contaminación y se han mejorado las condiciones de salud. | | |
| BALTISTAN FUNDAZIOA | *"Sharba Sharbak II: Mejoras en educación secundaria"*<br>Valle de Hushe, Baltistan-Pakistan<br><br>Objetivo: Promover mejoras en la formación del alumnado.<br>P.beneficiarias: 75 alumnos/as<br>Puesta en marcha del proyecto: Cambios en el proyecto inicial: las aulas de secundaria en lugar de hacerlas sobre el edificio de primaria, se han iniciado en un nuevo edificio y de este modo esta nueva edificación contará con todos los cursos de secundaria. Este año se han hecho 3 cursos, 6º,7º y 8º (dos de ellas con la ayuda concedida por el Ayuntamiento de Aretxabaleta), y en los próximos años se harán las clases de 9º, 10º, 11º y 12º curso. Este año se ha comprado el material de construcción y tras el invierno empezarán con la edificación. Las verdaderas beneficiarias de este proyecto son las niñas: les permite seguir estudiando allí (si no dejan la escuela y se preparan para el matrimonio). Según los datos, el 93% de las niñas cursan primaria y esto es todo un éxito en esta región.<br>En la edificación de la nueva escuela 167 hombres trabajarán gratuitamente. | 9 | 3.446,81 |
| AMSOGRA | *"Por una vivienda digna y sana"*<br>Mozonte, Nueva Segovia. Nicaragua<br><br>Objetivo: Mejorar el modo de vida de los agricultores que viven al sur del río Coo, dando prioridad a las mujeres, y reducir la tasa de mortalidad.<br>P. beneficiarias: Una familia.<br><br>Hasta ahora, son 22 las viviendas construidas.<br>Puesta en marcha del proyecto: La familia del barrio "San Antonio" elegida por los vecinos y los líderes de la comunidad está formada por 8 miembros, los padres y 6 hijos. Esta familia vivía en una casa en muy malas condiciones y con una única habitación. Con la nueva vivienda, además de evitar algunas enfermedades ( Chagas desaparece y denge y malaria se reduce a la mitad), mejora la conviviencia. Todos los trabajadores son de la comunidad y los miembros de esta familia han creado 1.800 adobes. Estos son los cambios: 3 habitaciones, agua potable dentro de la vivienda, servicios limpios y adecuados, cocina sin humos, ventanas con red para evitar la entrada de insectos. Junto a la casa han hecho un huerto. El cambio más importante del proyecto inicial ha sido el tejado: inicialmente era de madera pero ha tenido que ser sustituido por metal y encima tejas. Ahora los dueños de la vivienda son el marido y la mujer.<br>Con este proyecto se ha conseguido dignidad y respeto. | 10 | 3.829,79 |

# AURREKONTUAREN %10ETIK LARRIALDIETARAKO EMANDAKO DIRU LAGUNTZA

- **2015ean ONARTUTA ETA 2016an EMANDA:**

  1.- UNRWA EUSKADI: 1.500 €
  Siriako errefuxiatuendako izan da diru laguntza.
  Aretxabaletako Udalak emandako diru kopuru horrekin higiene-produktuak banatu dituzte helduen artean (konpresak 172 emakumek jaso dituzte eta fardelak 26 pertsonak).
  Produktuak bi hilabeterako bakarrik ailegatu dira.
  Damasko eta Damasko Rural lurraldean egin dute banaketa.

  2.- OTSAILAK 27 KOORDINAKUNDEA: 698,08 €
  XII. Janari Karabana: "Piztu itxaropena" kanpaina.
  Erakundeen kasuan, 2. eskuko kamioiak erosteko erabiltzen da diru laguntza, jasotako janaria Tindufeko saharar errefuxiatuen kanpamenduetara eramateko.
  Euskal Herrian 240 tona batu dituzte laguntza humanitarioan, eta batez ere elikagaitan. Bidaltzen diren elikagaiak honako hauek dira: azukrea, atuna, dilistak, sardinak olioan eta pasta. Higiene produktuak (konpresak) ere bidaltzen dira.
  Diruari dagokionez, 160.341,74 € jaso dute eta horrekin 7 trailer, ardatz zurruneko 2 kamioi, furgoi bat eta 2 todoterreno erosi zituzten, guztiak 2. eskukoak. Gero, Saharan geratzen dira haien beharretarako.
  Ekimen horrekin Saharar errefuxiatuen elikadura-segurtasuna sendotzea eta bizi kalitatea hobetzea lortu da.

  3.- EUSKADIN DEN SAHARAR ORDEZKARITZA: 698,08 €
  2015eko urriaren 17 eta 18an izandako uholdeek saharar errefuxiatuen kanpamentuetan sortutako kalteei aurre egiteko eman zuen diru laguntza udalak.
  Dirua etxeak berriro eraikitzeko eta janaria eta botikak eramateko erabili da.

- **2016KO ESKAERAK**

  1.- OPORRAK BAKEAN: 685 €
  7-12 urte bitarteko haur saharar batek uda Aretxabaletako familia batekin pasatu du, eta udalak emandako diruarekin bidaiaren kostua ordaindu da, hau da, hegazkinaren pasajea.
  Egonaldia ekainaren 26tik abuztuaren 26ra izan da, eta familia umearen mantenuaz arduratu da. Osasun-zaintza, berriz, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren ardura izaten da, umeak Euskadin dauden bitartean; horretaz aparte, istripu eta erantzukizun zibilerako aseguru pribatua ere izaten dute etorritako neska-mutilek.

  2.- HIRUATX: 600 €
  Apirilaren 15ean Ekuadorreko lurrikarak sortu zituen kalteei aurre egiteko eman zuen diru laguntza udalak.
  662 pertsona hil egin ziren eta 28.500 lagunek euren etxebizitzak utzi behar izan zituzten, erabat suntsitu zirelako edo kalteak jaso zituztelako. Gehien kaltetutako eskualdeetako batzuk landa girokoak dira, non biztanleen %90 inguru pobrezia egoeran bizi den.
  Elkartasun kanpainarekin batutako dirua Terranueva GKEari eman zaio. Elkarte hori emergentzia lanetan ari da bertan zuzenean, eta bi lan ildo hauek ditu: alde batetik, oinarrizko laguntza ematea (ura, mantak, higiene kit-ak, moskiterak…); eta bestetik, Cash For Work programaren bidez, ordainketa sinboliko bat ematea, eta horren truke, jendeak bere ingurua txukundu eta berregin zuen, alde emozionala deskargatzeko aukera ere emanez.
  Goienan jasotako laguntza 17.500 €-koa izan da eta horrekin elikaduraren segurtasuna bermatu eta ur garbia eta sendagaiak helarazi dira.

  3.- OTSAILAK 27 KOORDINAKUNDEA: 715 €
  XIII. Janari Karabana: "Piztu itxaropena" kanpaina.
  Erakundeen kasuan, 2. eskuko kamioiak erosteko erabiltzen da diru laguntza, jasotako janaria Tindufeko saharar errefuxiatuen kanpamenduetara eramateko.
  Euskal Herrian 220 tona batu dituzte laguntza humanitarioan, eta batez ere elikagaitan. Bidaltzen diren elikagaiak honako hauek dira: azukrea, atuna, dilistak, sardinak olioan eta pasta. Higiene produktuak (konpresak) ere bidaltzen dira.
  Diruari dagokionez, ez dakigu zehazki zenbat jaso den, baina horrekin erosi dituzte 6 trailer, ardatz zurruneko kamioi 1, anbulantzia 1 eta 2 autobus. Ibilgailu hauek 2. eskukoak dira. Gero, Saharan geratzen dira haien beharretarako.
  Ekimen honekin, Tindufeko kanpamenduetako saharar errefuxiatuen elikadura-segurtasuna sendotzea eta bizi kalitatea hobetzea lortu da.

# AYUDA CONCEDIDA DEL 10% DE LA PARTIDA EN CONCEPTO DE EMERGENCIAS

- **APROBADO EN 2015 Y ABONADO EN 2016:**

<u>1.- UNRWA EUSKADI: 1.500 €</u>
Ayuda para los refugiados de Siria.
Con la ayuda recibida desde el Ayuntamiento de Aretxabaleta se han repartido productos de higiene entre la población adulta (172 mujeres han recibido compresas y 26 adultos pañales).
Los productos han llegado únicamente para dos meses.
El reparto se ha hecho en Damasco y zona de Damasco Rural.

<u>2.- OTSAILAK 27 KOORDINAKUNDEA: 698,08 €</u>
XIIª Caravana de Alimentos: campaña “Alimenta una esperanza”.
En el caso de las instituciones la ayuda se utiliza para la compra de camiones de segunda mano en los que se hace el envío de los alimentos recogidos con destino a los campamentos de población saharaui en Tinduf.
Se ha conseguido 240 toneladas de ayuda humanitaria, principalmente alimentos. Los alimentos que se envían son: azúcar, atún, sardinas en aceite, pasta y legumbres. También productos de higiene, como compresas.
Con respecto al dinero, se ha recogido 160.341,74 € y con ello se han comprado 7 trailer, 2 camiones de eje rígido, 1 furgón y 2 todo terreno. Estos vehículos son de segunda mano y no tienen vuelta, se quedan allí para cubrir sus necesidades.
Con este proyecto se ha fortalecido la seguridad alimenticia y se ha mejorado la calidad de vida de la población refugiada del Sahara.

<u>3.- DELEGACION SAHARAUI EN EUSKADI: 698,08 €</u>
El Ayuntamiento ha concedido la ayuda para hacer frente a los daños ocasionados por las inundaciones en los campos de refugiados de Sahara, el 17 y 18 de octubre del 2015.
Pidieron ayuda para poder construir nuevamente las viviendas y mandar alimentos y medicamentos a la zona del desastre.

- **2016KO ESKAERAK**

<u>1.- OPORRAK BAKEAN: 685 €</u>
Una menor de 7 a 12 años ha pasado el verano con una familia de Aretxabaleta y la ayuda concedida es en concepto del billete del avión.
La estancia ha sido del 26 de junio al 26 de agosto y la familia acogedora se hace cargo de su mantenimiento. La atención sanitaria corre a cargo del servicio de salud del Gobierno Vasco mientras se encuentre aquí; aparte, estos menores cuentan con un seguro de accidente y de responsabilidad civil.

<u>2.- HIRUATX: 600 €</u>
El Ayuntamiento concedió una ayuda para hacer frente a los daños ocasionados por el terremoto ocurrido el 15 de abril en Ecuador.
Fallecieron 662 personas y 28.500 tuvieron que abandonar sus viviendas por el estado en el que se encontraban. Algunas de las zonas más afectadas son zonas rurales en las que el 90% de la población vive en situación de pobreza.
El dinero recogido en esta campaña se ha entregado a la ONG Terranueva, quien trabaja directamente en esa zona y tiene dos líneas de trabajo: por una parte, ayuda de emergencia (agua, mantas, kits de higiene, mosquiteras…); y por otra, a través del programa Cash For Work, a cambio de una aportación simbólica, las personas afectadas reconstruyan la zona, permitiendo de este modo además una descarga emocional.
En Goiena se recogió 17.500 € y con ello se ha podido fortalecer la seguridad alimentaria y el envío de agua limpia y medicamentos.

<u>3.- OTSAILAK 27 KOORDINAKUNDEA: 715 €</u>
XIIIª Caravana de Alimentos: campaña “Alimenta una esperanza”.
En el caso de las instituciones la ayuda se utiliza para la compra de camiones de segunda mano en los que se hace el envío de los alimentos recogidos con destino a los campamentos de población saharaui en Tinduf.

Se ha conseguido 220 toneladas de ayuda humanitaria, principalmente alimentos. Los alimentos que se envían son: azúcar, atún, sardinas en aceite, pasta y legumbres. También productos de higiene, como compresas.
Con respecto al dinero recogido, en estos momentos no disponemos del dato exacto pero con ello se han comprado 6 trailer, 1 camión de eje rígido, 1 ambulancia y 2 autobuses. estos vehículos son de segunda mano y no tienen vuelta, se quedan allí para cubrir sus necesidades.
Con este proyecto se ha fortalecido la seguridad alimenticia y se ha mejorado la calidad de vida de la población saharaui refugiada del Tinduf.